

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektuaren kostu finkoak lokalaren alokairua eta haren mantentzea, argia, ura, internet eta telefonoa. Halaber, proiektuan modu egonkorrean lan egiten duen langileen soldata ere sartzen da hemen. Horrez gain, makineriaren eta ordenagailuen mantentzea, produktuaren lizentziak eta ziurtagiriak, aseguruak eta aholkularitza juridiko eta kontablea ordaindu behar ditugu. Horri webgunearen eta sare sozialen mantentzea ere gehitu behar zaio.

Bestalde, gure proiektuaren gastu aldakorak lehorgailu kopuruaren arabekoak dira, hau da, zenbat eta gehiago ekoitzi eta saldu, orduan eta gehiago gastatzen dugu. Gastu hauen artean daude lehorgailu bakoitzaren materialak, barne-piezak, karkasa, kableak eta ontziratzea. Halaber, dendetara edo bezeroengana bidaltzeko gastuak eta posible diren konponketa edo itzulketen kostuak sartzen dira. Horri gehitzen zaizkio internet bidezko salmenten komisiok, kanpaina zehatzetako publizitatea eta ekoizpenean erabiltzen den energia.

Ondorioz, eskala-ekonomiak esan nahi du lehorgailu gehiago ekoizten dugun heinean, bakoitza ekoiztea merkeagoa dela. Kopuru handiagoa ekoiztean, materialak prezio hobean eros ditzakegu, makineria hobeto aprobetxatzen dugu eta gastu finkoak produktu gehiagoren artean banatzen dira. Horrela, unitateko kostua jaisten da eta prezio lehiakorragoa eskaini ahal dugu, proiektuaren errentagarritasuna handituz.

Azkenik, hedapen-ekonomia gertatzen da ez bakarrik lehorgailu gehiago ekoizten dugunean, baizik eta negozioa zabaltzen dugunean eta produktu desberdinak ateratzen ditugunean, modelo berriak edo osagarriak, eta leku gehiagotan saltzen dugunean. Horrela, dagoeneko duguna aprobetxatzen dugu webgunea, publizitatea eta marka produktu gehiagorako, gehiago gastatu gabe. Modu honetan, jende gehiagengana iristen gara, kostuak murrizten ditugu eta proiektua hazten joan daiteke.